

## Artzotzeko garbitegia

### Nolakoa da garbitegia?

Ez dakigu zein den garbitegi hau eraiki zen data zehatza. Uste dugu 1783. urte inguruan izan zela.

Hau Artzotzeko garbitegia da:



Garbitegiak honako parte hauek ditu:

- **Iturri** bat burdinazko txorrota batekin.  
Txorrota horretatik ur asko ateratzen da neguan eta gutxi udan.
- Iturri horretako ura **pila** edo **aska** izeneko eremu batean erortzen da.  
Harrizko bi laukizuzen bezalakoak dira.



Irakurketa Erraza

- Askatik ateratzen den eta ura garraiatzen duen harrizko **ubide txiki** bat.
- **Uraska** ere deitze den **ur depositu** bat. Uraska hau iturria baino 9 metro gorago dago. San Gervasen errekatik datorren ura depositu honetan pilatzen da.
- Garbitokiaren zati guztiak estaltzen dituen **estalkia** edo teilatua. Estalkia 1977. urtean berritu zen.

Garbitegi honetako ura beste erreka batzuekin elkartzen da eta Allotzeko urtegian amaitzen da.

Duela urte asko herriko jendeak hemen arropa garbitzen zuten eta gero hau garbitegiaren inguruko sasietan lehortzen uzten zuten.

### **Nola heltzen zen ura Artzotzeko herrira?**

Duela urte asko herriko jendeak ura hartzeko Iturria izeneko erreka bateraino joan behar zuten. Han, botila erraldoiak urez bete eta herriraino eramaten zituzten.

1952. urtean lehen aldiz ura mendian zegoen iturburutik Artzotzeko plazan zegoen parroquia-etxearen fatxadako txorrotaraino eramateko obra bat egin zen.

Horrela, herrian bizi zirenek  
ura etxera eramateko  
ez zuten haien botila erraldoiekin  
errekaraino joan behar.

